

'LANGILEEN' ESTATUTUA  
**10 URTE KAPITALAREN  
NEURRERAKO LEGEEKIN**



DOKUMENTAZIO  
ZENTROA  
TXE 10136



**Alternatiba badago:**

Langileek egindako Langileen alderako lege berriak  
**AUTONOMI ESTATUTU NAZIONALA**

**LAB**



**L.E.ak izan zuen "birtutea", lehendik zegoen gauza txar oro -langileriantzat- jasotzea izan zen, "hobekuntza"-kapitalarentzat- sartuaz batera:**

Erabat ezabatu zuen Euskadin lan-harremanetarako marko autonomoa erregulatze-ko ahalbidea.

Enpleguaren egonkortasun hastapena (lan-harreman mugagabea), enplegu ororen aldi baterakotasun hastapenez ordezkatu zuen.

Despidu "objetiboa" sendartzen du, bizkortu egiten ditu krisi-espedienteak, lanasio-ordutegi-txandak delakoek sarturiko aldaketek induzituriko uzteak.

Despiduagatiko indemnizazioa zerbitzu-urte bakoitzeko 60 egun izatetik 45era gutxi-tu du, eta beraren gehienezko muga 60 hilerokotik 40ra. Gaur egun dohainezko despidua negoziatzen ari dira, ezen librea bada izan.

Erregulaziotik kanpo uzten ditu otseinak eta pertsonalگو funtzionaria eta administra-tiboa.

Mugikortasun geografikoa eta funtzionala

Iraitzi egiten du, langileriak ezar erazitako zubi eta urteroko jaiak gozatzearen praktika, behin-betiko legeztatzen ditu ordu estrak, luma kolpe batez ezabatzen ditu "amaiketakorako atsedanak".

Langileen organuzat zeuden Batzorde Ordezkariek eta Asanblea iraitzi zituen, eta enpresa-batzordeak ezarri. Gaur egun, UGT-CCOO eta ELAK batzordeak zapuztu nahi dituzte, eta ez, hain zuzen, Asanbleara itzultzeko.

**Kapitalak Langileen Estatuaren bidez bere helburuak gauzatzea lortu du:**

PLANTILA MALGUTASUNA; nahi unean kopurua doitzeko diru-laguntza eta bitarteko legal guztiak eskura izatean, bai eta langileen atazak bere "ekoitz-beharrei" moldatzeko ere.

EKOIZKORTASUNA AREAGOTU; lan-erritmo berriak, teknologia sartu eta ordu estrak esijitzeko, hots, gehiago ekoizti plantila bera edo txikiagoarekin, diru-laguntzak eta bitarteko legal guztiak eskura izatean.

ENPRESAL AGINPIDEAREN INDARTZEA: behin behineko kontratu baten bitartez edota merke ta azkar kaleratua izatearen betiko mehatxuaz.

Hau guzti hau, UGT-ELA eta CCOOen zuzendaritzen laguntza eta klaukazioari esker baino ezin zen; lasai arnasa egin dezketen, eta lan-legegintzari eta zuzendaritza sindikalei oroitarri ederra eraiki diezaiekete ugazaberia handiak eta ekonomiaren jauntxo eta Jauntxakurrek (aholkulari instituzional eta pribatuak, eraentzaileak, yuppiak, ekonomia-ministroak, gobernariak...)

GUK, LABEKO GIZON ETA EMAKUMEOK, EGOERA HAU ALDATZEAREN ALDERA BORROKATZERA DEITZEN DIEGU LANGILEEI, GIZARTE HAU ERALDATZERA, GIZARTE GIZATIARRAGO ETA ZUZENAGOA SORTARAZTEKO.

## **Alternatiba badago:**

**Langileek egindako Langileen alderako lege berriak**  
**AUTONOMI ESTATUTU NAZIONALA**